

## AZAROAK 7

### BIDALKETA MASIBOA

**Cristina Uriarteren** eta **Maite Larrañagaren** korreoak edota faxak **gure aldarrikapenekin betetzea** du helburu, inobilismoa salatu eta benetako negoziazioa eskatzeko!

Horretarako, Haurreskoletako langile eta hezitzaile guztioi, **azaroaren 7an, emailak (pertsonaletatik eta haurreskoletako emailetik) eta faxak bidaltzea** proposatzen dizuegu, **atxikituta bidaltzen dizuegun eredia erabilia**. Helbideak eta telefono zenbakia:

Cristina Uriarte: [h-idazkaria@euskadi.eus](mailto:h-idazkaria@euskadi.eus)  
[educauei@euskadi.eus](mailto:educauei@euskadi.eus)

Maite Larrañaga: [maite@haurreskolak.eus](mailto:maite@haurreskolak.eus)

Faxa: 943.12.10.65

## AZAROAK 8

### EBAKUAZIO SIMULAZIOA

**Ebakuazioa simulazioa** egingo dugu haurreskola guztietan, "Laneko arriskuen prebentzioaren inguruko araudiak zehazten duenaren arabera, haurreskola bakoitzean gutxienez urtean behin ebakuazio simulazioa bat egin behar da. Haurreskolan ikasturtean zehar egoera asko aldatzen denez eta egoera guztietan ebakuatzen jakiteak duen garrantzia kontuan hartuz, ikasturtean 2 ebakuazio simulazio egitea da Prebentzio Zerbitzuaren helburua."

**Simulazio hau, honela bereiztuko dugu, hezitzaileak beltzez jantzita joatea** proposatzen dizuegu, **txaleko reflektanteekin**. Txalekoetan, sehasketan, kanpoaldean... **aldarrikapenak itsatsiko** ditugu.

Haurreskolara sartzen garenean berriro, ebakuazio simulazioaren datuak bete ondoren, Prebentzio Zerbitzura bidaliko ditugu. Bertan, oso garrantzitsua da izan ditugun gabeziak eta zailtasunak adieraztea, haurreskoletako egoera zein den salatzeke.

Borroka aste honetan zuen partaidetza ezinbestekoa da, beraz, ekimen hauetan parte hartzera animatzen zaituztegu!

**Denon artean lortuko dugu!**

**Haurreskolak Partzuergoan LAN BALDINTZAK HOBETU! HEZKUNTZA ERAIKI!**

